

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2017ko ABENDUAREN 14an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2017ko abenduaren 14an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


**ZINEGOTZIAK:** Gotzon Jauregi Sarasola  
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre  
Ander Leon Nanclares  
Angel Serrano Martinez  
Aritz Sarria Saraqueta  
Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
  - **2017ko azaroaren 9an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 9 de noviembre de 2017.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
3. **2/2017 Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada./Aprobación inicial de la modificación de créditos nº2/2017.**
4. **Erroitz baltzu mugatuari 2017 urteari dagokion ekarpenaren kitapena onestea, hala bada/ Aprobación de la liquidación presentada por Erroitz baltzu mugatua de la ayuda económica concedida en el ejercicio 2017.**
5. **Erniozaleak Kultur Elkartek eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada/Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Erniozaleak Kultur Elkartea.**
6. **Gipuzkoako Mendizale Federazioak aurkezturiko fakturaren onespena, Olazarko bidearen homologazioa./Aprobación de la factura presentada por Gipuzkoako Mendizale Federazioa, homologación del camino Olazar.**
7. **Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
8. **Beste batzuk/Otros.**
9. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**
  - 9.1. **“Aiztondo bailarako presoen eskubideen aldeko mugimenduak burutuko duen manifestazioari atxikimendua”.**



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

.../...

**LEHENENGO PUNTUA**

**ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2017 urteko urriaren 5eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

**BIGARREN PUNTUA**

**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Idazkari-kontuhartzaile andreak batzarkideei jakitera ematen die aurreko Udalbatzatik oraingora ez direla Alkate ebazpenik eman.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

**HIRUGARREN PUNTUA**

**2/2017 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.


Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENA:** Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

**KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera,




## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipaturako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

| Gastuen partida              | Azalpena                                   | Kredituak |           |                |
|------------------------------|--|-----------|-----------|----------------|
|                              |  | Egungoak  | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0000.130.153.40.01<br>2017 | LABOR.FINKOEN<br>ORD.OBRET.BRIGADA         | 16.050,00 | 480,00    | 16.530,00      |
| 1 0000.131.153.40.01<br>2017 | ALDAR.LABOR.ORDAINK.OBR.BR<br>IGADA        | 0,00      | 4.500,00  | 4.500,00       |
| 1 0000.160.920.00.01<br>2017 | GIZARTE SEGURANTZA-<br>FUNTZIONARIAK       | 12.000,00 | 250,00    | 12.250,00      |
| 1 0000.210.153.10.01<br>2017 | AZPIEG.ETA OND.GAST.: PR<br>MANTENIMENDUA  | 0,00      | 2.445,17  | 2.445,17       |
| 1 0000.221.161.00.02<br>2017 | UR HORNIDURA                               | 17.000,00 | 250,00    | 17.250,00      |
| 1 0000.222.323.00.01<br>2017 | TELEFONO BIDEZKO<br>KOM.ESKOLA             | 700,00    | 250,00    | 950,00         |
| 1 0000.226.330.00.06<br>2017 | IHARDUERA SOZIO-KULTURAL<br>GASTUAK        | 2.500,00  | 2.300,00  | 4.800,00       |
| 1 0000.210.153.30.01<br>2017 | AZPIEGIT.ETA OND.GAST.HIRI<br>ALTZ.        | 100,00    | 60,00     | 160,00         |
| 1 0000.227.920.00.07<br>2017 | AHOLKUL:AZTERK.,LAN<br>TEKNIK..DIPUT.      | 400,00    | 380,00    | 780,00         |
| 1 0000.480.335.00.01<br>2017 | PARTIKUL.APORTAZIOAK.<br>EUSKARAKO IKA.    | 3.000,00  | 25,00     | 3.025,00       |
| 1 0000.625.332.10.01<br>2017 | ZERB.FUNTZION.INBERTS:<br>LIBURUTEG.E-BOOK | 0,00      | 260,00    | 260,00         |
| 1 0000.212.165.00.02<br>2017 | AZPIEGITURA GASTUAK:<br>ARGITERI PUBLIKOA  | 3.200,00  | 1.000,00  | 4.200,00       |
| 1 0000.131.332.10.01         | BEHIN BEH. LANG.LABOR:                     | 0,00      | 300,00    | 300,00         |



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

|                              |  |           |           |           |
|------------------------------|--|-----------|-----------|-----------|
| 2017                         | KULTUR TEKNIKARIA                        |           |           |           |
| 1 0000.160.332.10.01<br>2017 | GIZARTE SEGURANTZA:<br>KULTUR TEKNIKARIA | 0,00      | 100,00    | 100,00    |
|                              |  |           |           |           |
| <b>GUZTIRA</b>               |  | 54.950,00 | 12.600,17 | 67.550,17 |

| Kod.                        | Partida                   | Azalpena                            | Zenbatekoa       |
|-----------------------------|---------------------------|-------------------------------------|------------------|
| b                           | 2 0000.870.000.00.02 2017 | FINANTZAKETA LOTUA DUEN<br>GERAKINA | 12.580,00        |
| a                           | 2 0000.870.000.00.01 2017 | GERAKINAK                           | 20,17            |
|                             |                           |                                     |                  |
| <b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b> |                           |                                     | <b>12.600,17</b> |


**BIGARRENA:** Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

**HIRUGARRENA:** 2017ko azaroaren 21ean egindako Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

### KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA

Kreditu aldatetaren espedientea kontuan hartuta, Udal honek ez du betetzen 2017rako aurrekontuen egonkortasuna eta gastu araua. Beraz, Udal hau behartuta legoke, beraz, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2017rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017ko martxoaren 7koa Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz (1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikulua), kontuhartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Dena den, Kreditu Gehigarrien espedienteak honako finantziazioa du :

- Gastuak handitzea..... 12.600,17€
- Finantzaketa:

|                           |                                  |            |
|---------------------------|----------------------------------|------------|
| 2 0000.870.000.00.01 2017 | GERAKINAK                        | 20,17€     |
| 2 0000.870.000.00.02 2017 | FINANTZAKETA LOTUA DUEN GERAKINA | 12.580,00€ |

Eta argi eta garbi ikusten da kreditu espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **ERROITZ BALTZU MUGATUARI 2017 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN KITAPENA ONESTE, HALA BADA**

Ikusirik, Erroitz baltzu mugatuari 2017. urtean 750,00 eurotako diru-laguntza eman zitzaioa, Aiurri, Beterri-hamaboskaria argitaratzen laguntzeko.

Ikusirik, Erroitz baltzu mugatuak, Aiurri, beterrri-hamaboskariko 2017 urtean izan dituzten gastuen zuritzea aurkeztu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Erroitz baltzu mugatuak aurkezturiko, Aiurri, beterrri hamaboskariko gastuen kitapenaren onespena.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik Erniozale Kultur Elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten Zortzi Herrien arteko ibilaldia antolatu dutela, 2018ko maiatzaren 13rako. Ibilaldia aurten Albizturren hasi eta bertan bukatzen da. Horretarako ibilbideak txukundu eta margotzea beharrezkoa egin da.

Goian aipaturikoa gauzatu ahal izateko, Larraulgo Udalari 333,00.-eurotako diru-laguntza eskaera egiten diote Erniozaleak Kultur Elkarteak, 2014 urtean onestutako hitzarmenaren babesean.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, Larraulgo Udalak oraindik onartu gabe duela 2018 urterako Udal Aurrekontu Orokorra.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Larraulgo Udalak konpromisoa hartuko du, 2018 urterako Udal Aurrekontu orokorrean, dagokion partida onesteko, aipaturiko diru-laguntza gauzatu dadin.

### **SEIGARREN PUNTUA**

**GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOAK AURKEZTURIKO FAKTURAREN ONESPENA, OLAZARKO BIDEAREN HOMOLOGAZIOA, HALA BADA**

Ikusirik, Gipuzkoako Mendizale federazioak aurkeztu zuela aurrekontu bat, Olazarko ibilbidea homologatzeko, bere zenbatekoa 2.445,17 euro zirelarik.

Ikusirik, Larraulgo Udala interesatuta agertu zela Gipuzkoako Mendizale federazioak Larraulgo Olazarko ibilbidea homologatzeko, beraz, lanak eta aurkeztutako aurrekontua ontzat hartu zituen.

Ikusirik, aipaturiko lanak bukatu direla, Gipuzkoako Mendizale Federazioak aurkeztu dutelarik dagokion faktura.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Gipuzkoako Mendizale Federazioak aurkezturiko faktura onestea, bere zenbatekoa 2.445,17 euro direlarik.


BIGARRENA: 2.445,17eurotako gastua onestea 2017ko udal aurrekontuetako 210.153.10.01 partidaren kargura.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

|                |        |
|----------------|--------|
| BERRI LANTEGIA | 47,99  |
| ZU ETA BIOK    | 853,88 |
| BABESA SUZAI   | 246,66 |
| KIROLZER       | 61,70  |



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

|                            |        |
|----------------------------|--------|
| ICETEC                     | 157,30 |
| EBA ERKIZIA BRION          | 804,91 |
| GARAJE EKIN                | 284,62 |
| TOLOMENDI                  | 152,50 |
| BELARMENDI                 | 168,19 |
| LIZARRA                    | 141,11 |
| TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA | 872,13 |
| MAIZPIDE                   | 312,00 |
| MAIZPIDE                   | 312,00 |
| IBERDROLA                  | 153,67 |
| IBERDROLA                  | 82,50  |
| IBERDROLA                  | 247,63 |
| IBERDROLA                  | 29,75  |
| IBERDROLA                  | 288,50 |
| IBERDROLA                  | 66,55  |
| IBERDROLA                  | 178,02 |
| MOVISTAR                   | 18,15  |
| MOVISTAR                   | 53,53  |
| MOVISTAR                   | 17,99  |
| MOVISTAR                   | 69,54  |
| MOVISTAR                   | 132,86 |
| MOVISTAR                   | 53,24  |
| MOVISTAR                   | 19,25  |
| CORREOS                    | 7,94   |

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,  
ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **5.834,11** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.


### **ZORTZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

#### ***9.1. "AIZTONDO BAILARAKO PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MUGIMENDUAK BURUTUKO DUEN MANIFESTARZIOARI ATXIKIMENTUA"***

Aiztondoko Sare Herritarrak ondorengo idatzia aurkezten dute:



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

## **“Aiztondon elkarrekin aurrera egiteko prest gaude!**

### ***Giza eskubideak, konponbidea, bakea***

Aurreko abenduaren 9an, Parisen, euskal presoek bizi dituzten eskubide urraketetan aldaketak emateko indar eta borondate handia erakutsi zuten bertara hurbildu ziren herritarrek.

Orain Presoak lelopean ipar Euskal Herritik iritsi zaigu konponbidean zein bakean aurrera egiteko gizarte zibilak duen garrantziaren eredia. Bake Artisauen izenarekin, pasa den apirillean armagabetzea gauzatzea lortu zuten; are gehiago estatu frantziar zein espainiarraren borondate ezaren aurrean, gizarte zibila izan da Frantziako arduradun politiko eta judizialekin biltzea lortu duena. Gainera, elkarriketaren bitartez, espetxe politikari konponbide bat emateko emaitza positibo eta garrantzitsuak lortu dira, Parisko herriko etxean lortutakoa, esaterako.

Txalogarria iruditzen zaigu lanketa hori guztia, eta eredu hori jarraituz, oraingo sufrimendu eta eskubide urraketekin amaitzeko beharrezkoa da gizarte zibila aktibo izatea, motore, lorgarria dela uste dugu gainera. Norberaren indar eta borondatearekin lortuko dugu. Jendarte honek elkarrekin aurrera egin nahi duelako, horrenbeste sufrimendu eragiten duten ezohiko neurriekin amaitzeko prest dagoelako, eta azken batean, konponbidearen eta bakearen bidean pausuak emateko prest dagoen gizartea garelako.

Egia da, estatu espainiarrak ez duela konponbide prozesua martxan jartzeko inongo borondaterik erakutsi, baina hemen, Euskal Herrian, gehiago zabala lortu dugu instituzioetan, eta baita eremu sindikalean ere. Horren adibide dira, eskubide urraketa horiekin amaitzeko eskaera egin duten euskal erakunde publiko nagusien gehiengoa:

- Eusko Legebiltzarra
- Nafarroako parlamentua
- Gipuzkoako Batzar Nagusiak
- Arabako Batzar Nagusiak
- Bizkaiko Batzar Nagusiak

Horregatik presoek eskubideen errespetuaren alde Aiztondo bailarako udalak ere ildo honetan lanean jarraitzera animatu nahi ditugu. Oraindik bide luzea geratzen zaigu, eta bide hori elkarrekin egin nahi dugu. Ez dugu atzera pausurik eman nahi presoek urrunketarekin amaitzeko bidean, ez larriki gaixo dauden presoek askatasunean, ezta euskal presoek eskubideak urratzen dituen salbuespen legearen deuseztatenean ere. Bide honetan, datorren abenduaren 31an zuekin guztiokin, Zizurkil eta Villabonako kaleak bete nahi ditugu.”

Gaia azterturik, bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:


-Aldeko botoak: Urbietta, Pizarro, Leon, Jauregi, Martinez eta Sarria alkate/zinegotziak.

-Kontrato botoak: Ez daude.

-Abstentzioak: Asensio zinegotzia.

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengoz, Aiztondo Sare Herritarrek aurkezturiko “Euskal Presoak Euskal Herrira, Giza Eskubideak, Irtenbidea, Bakea” manifestazioari atxikimendua ematen dio.





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.10 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA